

Piedra y camino

Arrazoi du Urrek “tamalez, askotan behartuta aurkitzen gara gure nortasuna exhibitzera” dioenean. Lotura bikoitza deitzen dio Eve Kosofsky Sedgwick horri homosexualitatearen kasuan: esaten baduzu nabarmentzeagatik ari zara, ez baduzu esaten, heterosexualtzat hartuko zaituzte.

Gainera, Foucaultek (barkatu, badirudi ez dudala besterik irakurtzen) frogatzen duen bezala “esate” hori konfesiotik sortu zen XVIII. mendean, boterearen kategoriei loturik. Konfesioaren egia aitortzetik barne-gogoaren arakatzeko sistematikora nola pasatzen den erakusten digu, arakatzeko horren ondorioz sortzen delarik homosexual hitza, lehen praktikak zirena izate bihurtuz. Beraz, boterearen adar batek, psikiatriak, sortuko du neronek askatzeko bidean paratuko nauen etiketa. Etsigarria edo argigarria, baina etiketa horretatik sortuko da boterearen mekanismoak salatzen saiatuko den kritika *queerra*.

ETAk, Mikel Laboaren dolua ostu digun honetan haren kanta bat ekarri nahi nuke hona kritika *queerra* (batzuk usteko dute burgeskeriez jositako kritika dela) egiteko. Hil zenean aparatuan sartu nuen *Xoriak* diskoko kanta batek (*Piedra y Camino*, Atahualpa Yupanqui) erosi nuenean sortutako amorrua berritu zidan. Hona letra (barkatu gazteleraz ez dakizuen euskaldunok itzulpen eza, karaktereek agintzen dute): *Del cerro vengo bajando/Camino y piedra/Traigo enredada en el alma, vida/Una tristeza/Me acusas de no quererte/No digas eso/Tal vez no comprendas nunca, vida/Porque me alejo/Es mi destino/Piedra y camino/De un sueño lejano y bello, vida/Soy peregrino/Por mas que la dicha busco/Vivo pensando/Y cuando debo quedarme,*



Juanjo Olasagarre

Agirre

Rodriguez

vida/Me voy andando/A veces soy como el rio/Llego cantando/Y sin que nadie lo sepa, vida/Me voy llorando/Es mi destino/Piedra y camino/De un sueño lejano y bello, vida/Soy peregrino.

Baina nora doa gizon hau, ze dudarik gabe gizona da! Iraultza egitera doa andreari umea egin eta hark haz dezan utziz? Ala haren “patua” eta

“amets urruna” zerbait metafisikoagoa direlako aitzakiarekin ezin du pausa hartu? Ala kultura latindarreko nazioetan ohikoa den legez, emakume batetik bestera dabilen txuloputa horietako bat da, buztan arinkeria urrun ametsetz zurituz? Eta emakumeak zergatik agoantzen du, zergatik ez du pikutara bidaltzen? Irakur daiteke kanta maitaleak bi gizon izanda? Eta bi emakume? Berdin portatuko lirake? Imajinatu horrelako bikote batekin bizitzea.

Ez du horrenbeste egiten Ezker Abertzaleko buruzagi batek ama-emazteak euskal preso politikoen dako porrapatata garraiatzen irudikatu zituela, matxismo beltzenaren adierazle? Nahiz eta guk, euskal iraultzaileok, horrelako gauzak erabat gainditurik ditugulako ustearekin bizi. Ja!

Baina nik Katixak aipatu Beatriz Preciado eta bere iraultzaren kontzeptu transgenderikoari buruz hitz egin nahi nuen. Bere *Testo Yonquin* egiten duen gure gizartearen analisi zorrotza goraiatu nahi nuen, nahiz eta erabat bat ez etorri. Gizarte hau eraldatzeko bihurtu nahi gaituen halako terrorista transgeneroen teoria

azaldu nahi nuen eta alde geopolitiko baxter uzten duela (zer inporta zaio Etiopian gosez hiltzen ari den bati generoen eraikuntza) kritikatu. Azken boladan irakurri dudana libururik kitzikagarriena izan dela aitortu nahi nuen baina karaktereek agintzen dute. ■

Preciadok bere *Testo Yonquin* egiten duen gure gizartearen analisi zorrotza goraiatu nahi nuen, nahiz eta erabat bat ez etorri. Gizarte hau eraldatzeko bihurtu nahi gaituen halako terrorista transgeneroen teoria azaldu nahi nuen eta alde geopolitiko baxter uzten duela kritikatu